

Foru Aldundiak eskualdeko garraio zerbitzuaren kontratu berriak adjudikatu ditu

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 5a. Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du Arabako landagune txikiak beren eskualdeko herri nagusiekin edo erreferentziazko herriein lotzen dituen eskualdeko garraio zerbitzuaren 17 kontratu adjudikatzea. Kontratu berri horiek bi urterako izango dira, eta gehienezko aurrekontua 2.232.000 euro da.

Adjudikatutako kontratuak sorta hauei dagozkie: 2 Amurrio-Arespalditza, 3 Amurrio-Urduña, 4 Aramaio, 5 Izarra-Murgia, 6 Legutio, 7 Alegría-Dulantzi, 8 Agurain, 9 Araia, 10 Kuartango, 13 Iruña Oka, 14 Miranda de Ebro, 18 Maeztu, 19 Kanpezu, 20 Peñacerrada-Urizaharra, 21 Bernedo, 22 Errioxa mendebaldea eta 23 Errioxa ekialdea.

Eskualdeko garraioko bidaiarien kopurua asko ari da hazten azken urteotan. Guztira, 100.675 arabarrek erabili zuten zerbitzu hori 2025ean ohiko joan-etorrietarako, hau da, 2024an baino % 6 gehiago eta duela hamar urte baino % 335 gehiago.

Foru Aldundiak 620.000 euro bideratuko ditu landa-bideak konpondu eta hobetzera eta landa-ingurunean nekazaritza-inbertsioak bultzatzera

Deialdiak lehentasuna ematen die euri-jasek eragindako kalteei, eta laguntza handiagoa ematen die nekazaritza-jarduerarekin lotutako makinei, instalazioei eta obra osagarriei

Foru Gobernuaren Kontseiluak landa-bideak egokitzeko eta landa-inguruneko erakundeek egindako nekazaritza-jarduerak sustatzeko intereseko beste inbertsio batzuetarako laguntzen deialdia onartu du gaur, 620.000 euroko zuzkidurarekin.

Deialdiak 2025eko martxotik uztailean bitartean Arabako Lurralde Historikoko hainbat eremutan izandako ekaitz gogorren gertaerek eragindako kalteei erantzuteko aukera emango du. Ekaitz horiek landa-bideen sareari nabarmen eragin zioten eta nekazaritza-ustategietarako sarbidea zaildu zuten.

Lehendik dauden bideak konpontzeko, egokitzeko eta kontserbatzeko jarduketaz gain, laguntzen esparru berriak nekazaritzarako interesgarriak diren beste inbertsio batzuk ere jasotzen ditu, hala nola bideak mantentzeko makinak erostea, haien kontserbazioarekin edo nekazaritza-erabilerarekin lotutako instalazioak eta funtzionaltasun egokia bermatzeko beharrezkoak diren obra osagarriak.

Laguntzak landa-bideen titularrak diren tokiko erakundeei eta lurralde historikoan nekazaritzan inbertsioak egiten dituzten beste erakunde publiko batzuei zuzenduta daude. Eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, 20 egun baliouduneko epean, erabakia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Deialdiak % 80ko laguntza-ehunekoak aurreikusten ditu euri-jasek edo beste fenomeno natural batzuek eragindako kalteengatiko jarduketa berezietarako, % 65ekoa lehendik dauden bideak egokitzeko eta kontserbatzeko, % 80koa nekazaritza-intereseko beste inbertsio batzuetarako eta % 100ekoa jarduketei lotutako kostu tekniko jakin batzuetarako.



Prentsa Oharra **Nota de Prensa**

Foru aldundiak Zadorrako Ibilbide Berdearen bigarren faseko obrak (Billoda-Trespuentes tartea) adjudikatu ditu

Jarduketak 352.000 eurotik gorako inbertsioa eskatuko du, eta Zadorrako korridorearen mugikortasun jasangarria eta ingurumen balioa indartuko ditu

Foru aldundiak beste urrats bat eman du lurraldea egituratzen duten ibilbide berdeen sarea handitzeko. Esparru horretan, Gobernu Kontseiluak Zadorrako Ibilbide Berdearen bigarren faseko obrak (Billoda-Trespuentes tartea) Guinaldura Excavaciones y Obras, SL enpresari adjudikatzea onetsi du gaur goizean.

Foru erakundeak 352.667,46 euro (BEZa barne) inbertituko ditu jarduketa horretan, zeinaren % 40 EGEF funtsek finantzatuko baitute, Euskadi EGEF 2021-2027 Programaren esparruan. Lan horiek egiteko epea zazpi hilabetekoa da.

Proiektuak Trespuentesko Administrazio Batzarraren bide publikoen 2.574 metro baino gehiago egokitzea aurreikusten du, oinezkoen eta bizikleten erabilerarako funtzionaltasuna eta segurtasuna hobetzeko.

Zadorra ibaia ardatz estrategikoa da, bai ingurumenari dagokionez, bai Arabako Lautadako lurraldeari dagokionez. Ekologia eta aisialdi balio nabarmenez gain paisaiaren aldetik ere potentzial handia du, landa eta natura balioak ezaugarri dituen ingurune batean. Testuinguru horretan, Zadorraren Ibilbide Berdearen jarduketak garrantzi berezia du ingurumena babesteko eta mugikortasun jasangarria sustatzeko.

Bizikleta ibilbide horri esker, Vitoria-Gasteiz, Krispiña, Margarita, Trespuentes, Billoda eta Langraiz Okako herriguneak lotu daitezke, baita Jundizko industrialdea ere. Era berean, motorrik gabeko joan-etorriak egitea eta ingurune naturalaz gozatzea ahalbidetzen du.

Zadorraren Ibilbide Berdea 2016an hasi zen garatzen, Billoda eta Langraiz Oka arteko tartea eginez. 2019an, Vitoria-Gasteizko Eratzun Berdearen eta Krispiñaren arteko tartea osatu zen, eta iaz Billoda eta Trespuentes arteko zatiaren lehen fasea jarri zen martxan, Santa Katalina adarrarekin batera.